Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2487

EBAZPENA, 2009ko abenduaren 11koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariarena. Ebazpen honen bitartez Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuaren azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuaren babesean eskatutako laguntzak ematen eta ukatzen dira. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko landa-etxeetan egindako inbertsioak diruz laguntzen ditu.

Ikusita aurkeztu diren laguntza-eskariak. Eskariok Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren laguntza horien 2009ko ekitaldiko deialdia egiteko 2009ko maiatzaren 20ko Aginduaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko landa turismoko establezimenduetan inbertitzeko dirulaguntzak emateko erregimena arautu duen azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuaren babespean egin ziren. Jasotako eskabideen zerrendak ebazpen honetako (1), (2) eta (3) I., II. eta III. eranskinetan daude eta eskabideekin batera aurkeztutako agiriak ere bai. Eskabide bakoitzari dagokion espediente-zenbakia ere eranskin horietan azaltzen da.

Kontuan hartuta, besteak beste, erregelamendu hauek LGENF eta landa garapenerako erkidegoko laguntzak zehazten dituztela: Kontseiluaren ekainaren 21eko 1290/2005 Erkidegoko Erregelamendua (EE) eta Kontseiluaren irailaren 20ko 1698/2005 Europako Erregelamendua. Aipatu laguntzen artean daude 17/2008 Dekretuaren II kapituluan jasotakoak.

Kontuan hartuta aipatutako erregelamenduei jarraiki LGENFari dagokiola erkidegoko finantzaketa.

Kontuan hartuta, urriaren 3ko 194/2006 Dekretuari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileari dagokiola, baimena duen erakunde bakarra den aldetik, Europako erkidegoaren LGENF diru-laguntzen kargura finantzatutako laguntzak ordaintzea.

Kontuan hartuta Balioespen Batzordeak, azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuaren 10. artikuluari jarraiki, egindako ebazpen proposamena. Jakinda aipatu Batzordea Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren 2008ko abenduaren 3ko Ebazpena medio izendatu zela.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

2487

RESOLUCIÓN de 11 de diciembre de 2009, del Director de Desarrollo Rural y Litoral por la que se conceden y deniegan las ayudas solicitadas al amparo del Decreto 184/2008, de 11 de noviembre del Consejero de Agricultura, Pesca Y Alimentación, de ayudas a inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Vistas las solicitudes de ayuda presentadas al amparo de la Orden de 20 de mayo de 2009, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se procede a la convocatoria de ayudas, para el ejercicio 2009, al amparo del Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula el régimen de concesión de ayudas económicas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que se relacionan en los anexos I a III de la presente Resolución (1), (2), (3), así como la documentación junto con ellas aportadas, y cuyos números de expediente se indican en los citados anexos.

Considerando que, entre otras cuestiones, los Reglamentos Comunitarios (CE) n.º 1290/2005 del Consejo de 21 de junio y 1698/2005 del Consejo de 20 de septiembre establecen el fondo FEADER y las ayudas comunitarias a favor de un desarrollo rural.

Considerando que conforme a los anteriormente citados Reglamentos comunitarios corresponde al Fondo Comunitario Feader la financiación comunitaria.

Considerando que, de conformidad con el Decreto 194/2006, de 3 de octubre, corresponde al Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como único organismo autorizado, el pago de las ayudas financiadas con cargo al fondo comunitario Feader.

Considerando la propuesta de resolución elaborada por la Comisión de Valoración en aplicación del artículo duodécimo del Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, y nombrada mediante Resolución de 3 de diciembre de 2008, del Director de Desarrollo Rural y Litoral.

Kontuan hartuta aurreko guztia, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen (1) I. eranskineko zerrendan dauden eskatzaileei azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuak erregulatzen dituen laguntzak ematea. Dekretu horrek erregulatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko landa-etxeek egindako inbertsioak. Laguntza horiek 2009an iragarri ziren 2009ko maiatzaren 20ko Aginduaren bitartez. Goian aipatu eranskinean daude zehaztuta laguntza jasoko duten pertsonak edo erakundeak, dagokien proiektua, inbertsioa eta diru-laguntzaren zenbatekoa. Zenbatekoa, guztira 81.740,97 eurokoa da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuarekin ordainduko da.

Diruz lagun daitezkeen inbertitzeko proiektuak 2010eko abenduaren 31 baino lehen burutu behar dira.

Diru-laguntza jaso aurretik, jarduerak edota inbertsioak egin eta ordaindu direla justifikatu behar da, kontuan hartuta aurkeztu behar diren dokumentuak eta bete beharreko baldintzak (azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuko 18. artikulua). Justifikazio dokumentuak diru-laguntza jasoko duen proiektua egin eta ordaindutako egunetik hiru hilabetera aurkeztu behar dira gehienez.

Inbertsioa ez bada egiten jarritako epean (luzapenak barne) edo inbertsioa egindako ziurtagiriak ez badira epe horretan aurkezten, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo da eta, behar izanez gero, jasotako dirua bueltatu egingo da; hori, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuaren azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuaren 20. artikuluari jarraiki.

Bigarrena.– Ebazpen honen (2) II. eranskineko zerrendan dauden eskatzaileei azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuak erregulatzen dituen laguntzak jasotzeko eskubidea aitortzea. Dekretu horrek erregulatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko landa-etxeek egindako inbertsioen laguntzak. Laguntza horiek 2009an iragarri ziren 2009ko maiatzaren 20ko Aginduaren bitartez. Goian aipatu eranskinean daude zehaztuta laguntza jasoko duen pertsona edo erakundea, dagokion proiektua, inbertsioa eta diru-laguntzaren zenbatekoa. Zenbatekoa, guztira 36.724,21 eurokoa da eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF) dela medio finantzatzen da.

Diruz lagun daitezkeen inbertitzeko proiektuak 2010eko abenduaren 31 baino lehen burutu behar dira.

Teniendo en cuenta lo anteriormente expuesto

RESUELVO:

Primero.– Conceder a los solicitantes que se relacionan en el anexo I de la presente Resolución (1) las ayudas reguladas por el Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, por el que se regulan las ayudas económicas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco y convocadas para el ejercicio 2009 mediante Orden de 20 de mayo de 2009, especificándose en el citado anexo, la persona o entidad beneficiaria, el proyecto subvencionado, la inversión y el importe de la subvención concedida con cargo a los Presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siendo que la cuantía total asciende a 81.740,97 euros.

Los proyectos de inversión subvencionables habrán de ejecutarse con anterioridad al 31 de diciembre de 2010.

El pago de la subvención se realizará previa justificación de la ejecución y del pago de las actividades y/o inversiones, teniendo en cuenta la documentación a presentar y condiciones establecidas en el artículo 18 del Decreto 184/2008, de 11 de noviembre. La presentación de la documentación justificativa debe hacerse dentro de los tres meses siguientes a la finalización de la ejecución y pago del proyecto objeto de la ayuda.

La no realización de la inversión dentro de los plazos máximos establecidos, incluidas las prorrogas, o la falta de presentación en el mismo plazo de la documentación acreditativa de la realización de la inversión, supondrá la perdida del derecho a la percepción de la subvención y, en su caso, la iniciación del procedimiento de reintegro previsto en el artículo 20 Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación.

Segundo.– Reconocer a los solicitantes que se relacionan en el anexo II de la presente Resolución (2) el derecho a la subvención relativa a las ayudas reguladas por el Decreto Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, por el que se regulan las ayudas ayudas económicas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco y convocadas para el ejercicio 2009 mediante Orden de 20 de mayo de 2009, especificándose en el citado anexo, la persona o entidad beneficiaria, el proyecto subvencionado, la inversión y el importe de la subvención concedida, siendo que la cuantía total asciende a 36.724,21 euros, financiada con cargo al Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (Feader).

Los proyectos de inversión subvencionables habrán de ejecutarse con anterioridad al 31 de diciembre de 2010.

Diru-laguntza jaso aurretik, jarduerak edota inbertsioak egin eta ordaindu direla justifikatu behar da, kontuan hartuta aurkeztu behar diren dokumentuak eta horretarako baldintzak (azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuaren 18. artikulua). Justifikazio dokumentuak aurkeztu behar dira diru-laguntza jasoko duen proiektua egin eta ordaindutako egunetik hiru hilabetera, gehienez.

Inbertsioa ez bada egiten jarritako epean (luzapenak barne) edo inbertsioa egindako ziurtagiriak ez badira epe horretan aurkezten, LGENF ordainketa egiteko betebeharretik libre geratuko da, Kontseiluaren ekainaren 21eko 1290/2005 Erregelamenduaren (EE) 29. artikuluari jarraiki.

Diru-laguntzak emateko ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak hartuko du, urriaren 3ko 194/2006 Dekretuari jarraiki.

Hirugarrena.– Erabaki honen (3) III. eranskineko zerrendan dauden eskatzaileei azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuak erregulatzen dituen laguntzak ukatzea. Dekretu horrek erregulatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko landa-etxeek egindako inbertsioen laguntzak. Laguntza horiek 2009an iragarri ziren 2009ko maiatzaren 20ko Aginduaren bitartez. Aipatu eranskinean daude laguntzak ukatzeko arrazoiak.

Laugarrena.– Kasu hauetan, diru-laguntzak eten egingo dira eta, behar denetan, jasotako dirua bueltatu egin beharko da: diru-laguntza jaso duen proiektua egin ez bada; diru-laguntza emateko betekizunak eta baldintzak ez badira betetzen eta mantentzen, batik bat landa-etxearen nekazaritza eta turismo ekintzak ez mantentzea, edota nekazari profesional bezala mantendu ez izana edo, gutxienez, landa-etxea zabaldu zuenean Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak eman zion baimena jaso zuenetik zenbatzen hasita hamar urtean nekazal ekimenagatiko diru-sarrerak bere horretan mantendu ez izana.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen eta interesatuak gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordeari, hilabete baten buruan, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 114. eta 115. artikuluen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 11.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendaria,
JUAN PABLO MEDRANO OLMEÑO.

El pago de la subvención se realizará previa justificación de la ejecución y del pago de las actividades y/o inversiones, teniendo en cuenta la documentación a presentar y condiciones establecidas en el artículo 18 del Decreto 184/2008, de 11 de noviembre. La presentación de la documentación justificativa debe hacerse dentro de los tres meses siguientes a la finalización de la ejecución y pago del proyecto objeto de la ayuda.

La no realización de la inversión dentro de los plazos máximos establecidos, incluidas las prorrogas, o la falta de presentación en el mismo plazo de la documentación acreditativa de la realización de la inversión, supondrá la liberación del compromiso de pago a cargo del Feader, de conformidad con lo establecido en el artículo 29 del Reglamento (CE) 1290/2005, del Consejo de 21 de junio.

La resolución de pago de estas ayudas se llevará a cabo a través del Organismo pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco en aplicación del Decreto 194/2006, de 3 de octubre.

Tercero.– Denegar a los solicitantes que se relacionan en el anexo III de la presente Resolución (3) las ayudas reguladas por el Decreto 184/2008, de 11 de noviembre, por el que se regulan las ayudas económicas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco y convocadas para el ejercicio 2009 mediante Orden de 20 de mayo de 2009, especificándose en el citado anexo los motivos que fundamentan esa denegación.

Cuarto.– El incumplimiento del proyecto de inversión para el que se concede la ayuda, así como de los requisitos y condiciones que han determinado la concesión de la misma, y en especial el no mantener tanto la actividad agroturística como la condición de agricultor profesional o cuando menos, mantener la misma renta proveniente de la actividad agraria que cuando comenzó con la actividad de agroturismo, durante un mínimo de 10 años, a contar desde la fecha de concesión de la licencia de apertura por parte del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, supondrá la suspensión de las ayudas y el reintegro, en su caso, de las cantidades obtenidas.

Quinto.– Contra la presente resolución que no pone fin a la vía administrativa podrá el interesado interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación, de conformidad con el artículo 114 y 115 de la ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2009.

El Director de Desarrollo Rural y Litoral,
JUAN PABLO MEDRANO OLMEÑO.

(1) Ebazpen honetako I. eranskinak orri 1 dauka eta 5 eskatzaile guztira. Hurrenkerako 1. zenbakia, Maria Reyes Uriarte Iturrateren 311AR20090024 espedienteari dagokio, eta 5. zenbakia, M.ª Aranzazu Aramberri Zulaicaren 311GI20090029 espedienteari.

(2) Ebazpen honetako II. eranskinak orri 1 dauka eta 5 eskatzaile guztira. Hurrenkerako 1. zenbakia, Maria Reyes Uriarte Iturrateren 311AR20090024 espedienteari dagokio, eta 5. zenbakia, M.ª Aranzazu Aramberri Zulaicaren 311GI20090029 espedienteari.

(3) Ebazpen honetako III. eranskinak 0 orri dauka eta 0 eskatzaile guztira.

(1) El anexo I de la presente Resolución consta de 1 Página, con un total de 5 beneficiarios correspondiendo al número de orden 1, el número de expediente 311AR20090024 de Maria Reyes Uriarte Iturrate, y al número 5, el número de expediente 311GI20090029 de M.ª Aranzazu Aramberri Zulaica.

(2) El anexo II de la presente Resolución consta de 1 Página, con un total de 5 beneficiarios correspondiendo al número de orden 1, el número de expediente 311AR20090024 de Maria Reyes Uriarte Iturrate, y al número 5, el número de expediente 311GI20090029 de M.ª Aranzazu Aramberri Zulaica.

(3) El anexo III de la presente Resolución consta de 0 Páginas, con un total de 0 expedientes.

I. ERANSKINA
ANEXO I

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru-laguntzak	*Subvenciones concedidas con cargo a los Presupuestos Generales de la CA de Euskadi.*

	Espediente-zk. *N.º Expediente*	Baltzuaren izena *Razón Social*	Proiektua *Proyecto*	Lagun. Inbe. (€) *Invers. subv (€)*	Jasotako laguntza (€) *Ayuda concedida (€)*		
					2009 (€)	2010 (€)	2011 (€)
1	311AR20090024	Maria Reyes Uriarte Iturrate	Rehabilitación y acondicionamiento del caserio PA	150.000,00	25.875,00		
2	311GI20090026	Lamaño Etxebarri S.C.	Nekazal Turismoa Handitzeko Lanak	150.000,00	13.455,00		
3	311GI20090027	Olga Posse Olibeira	Proyecto de Agroturismo en Momotegi Baserria	150.000,00	15.525,00		
4	311GI20090028	Maria Errazkin Urdangarin	Ampliación y adecuación de borda para uso de apar.	150.000,00	13.455,00		
5	311GI20090029	M.ª Aranzazu Aramberri Zulaica	Proyecto de apartamentos-agroturismo	149.732,19	13.430,97		

II. ERANSKINA
ANEXO II

LGENF Funts Komunitarioaren kontura aintzatetsitako laguntzak	*Subvenciones reconocidas con cargo al Fondo Comunitario Feader*

	Espediente-zk. *N.º Expediente*	Baltzuaren izena *Razón Social*	Proiektua *Proyecto*	Lagun. Inbe. (€) *Invers. subv (€)*	Jasotako laguntza (€) *Ayuda concedida (€)*		
					2009 (€)	2010 (€)	2011 (€)
1	311AR20090024	Maria Reyes Uriarte Iturrate	Rehabilitación y acondicionamiento del caserio pa.	150.000,00	11.625,00		
2	311GI20090026	Lamaño Etxebarri S.C.	Nekazal turismoa handitzeko lanak	150.000,00	6.045,00		
3	311GI20090027	Olga Posse Olibeira	Proyecto de agroturismo en Nomotegi baserria	150.000,00	6.975,00		
4	311GI20090028	Maria Errazkin Urdangarin	Ampliación y adecuación de borda para uso de apar	150.000,00	6.045,00		
5	311GI20090029	M.ª Aranzazu Aramberri Zulaica	Proyecto de apartamentos-agroturismo	149.732,19	6.034,21		

III. ERANSKINA
ANEXO III

Ukatutako eskabideak	*Solicitudes Denegadas*

	Espediente-zk. *N.º Expediente*	Baltzuaren izena *Razón Social*	Proiektua *Proyecto*	Ukoaren arrazoia *Motivo de Denegación*